



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

Ebazpena, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, EAEko itsasertza babestu eta antolatzekeo lurraldearen arloko plana klima-aldaketaren erronkara egokitzekeo ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua formulatzen duena.

AURREKARIAK

2021eko uztailaren 19an, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak ingurumen-organoari eskaera egin zion EAEko Itsasertza Babesteko eta Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Plana (aurrerantzean, Plana edo LAP) Berrikusteko eta Klima Aldaketaren erronkara egokitzekeo ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua emateko, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean eta ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoaren arabera.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen baitu, V. eranskinean dakarren formularioa.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin du, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta Plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan ezarria, eta haren emaitza espedientean bildu da.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki iritzitako oharrak egiteko.

Behin txostenak jasotzeko indarreko legerian ezarritako epea bukatutakoan eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan dioenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 42. artikuluan arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek behar bezala bermatuko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko efektuei buruzko analisia, hautabide egokiak hautatu ahal izateko; betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egingo zaie administrazio publiko batek hartzen edo onartzen dituen plan eta programei, bai eta horien aldaketei ere —eta betiere horiek egitea eta onartzea legez edo erregelamenduz ezarritako xedapen batek eskatzen badu—, baldin eta plan eta proiektu horiek esparrua ezartzen badute etorkizunean baimena emateko legez ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaien proiektuei.



Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organismoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira, eta honako hauek guztiak ikusi dira: Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea, eta aplikatzeko den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— — Ingurumen-ondorioetarako bakarrik, EAEko Itsasertza Babesteko eta Antolatze Lurraldearen Arloko Plana berrikusteko eta klima alaketaren erronkara egokitze ingurumen azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua formulatzea, baldintza hauetan:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Aurrekariak:

Planaren aurrekari nabarmenak hauek dira:

- Behin betiko onarpena, martxoaren 13ko 43/2007 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurraldearen Arloko Plana (LAP).
- Behin betiko onarpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroei (aurrerantzean, LAG) buruzko uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez: Indarrean dagoen Itsasertza Babesteko eta Antolatze Lurraldearen Arloko Plana egokitze beharra ezartzen dute, itsasoaren maila igotzearen eta muturreko olatuen ondorio kaltegarrietarako. LAGei egokitze horretatik ondorioztatzen da, halaber, LAParen arau-edukia eguneratu eta aipatutako LAGetara egokitu behar dela.
- Eskakizun horiek garatzeko, 2020an, "EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurraldearen Arloko Plana berrikusteko eta klima-alaketaren erronkara egokitze Aurretiazko Azterlanak eta Diagnostikoa" dokumentua egin zen (2020ko martxoa).

Eremua:

Aurkeztutako aurrerapen-dokumentuaren arabera, Planaren eremu geografikoa edo lurralde-eremua honako eremu hauek osatzen dute:

- Lehorreko eremua: 500 metroko zabalerako lurralde-zerrenda bati dagokio (Itsasertzaren Babes eta Erabilera Jasangarriari buruzko eta Kostaldeei buruzko 22/1988 Legea aldatzen duen 2/2013

Legearen arabera zehaztutako eragin-eremua), Itsas Lehorreko Jabari Publikoaren (ILJB) mugaketa-lerrotik abiatuta neurtuta, baina itsas mailaren igoera kontuan hartuta.

- Trantsizio-eremua: Bi zerrendak osatzen dute, itsasadarra edo itsasoa den kontuan hartuta:
 - Itsas-eremuan, trantsizio-eremua Itsasoko Itsasertzak osatzen du, eta honela definitzen da: itsasoaren batez besteko mailaren eta ILJBren mugaketaren arteko azalera. Kasu horretan, itsaslabarrak, ILJBren barruan integratutako dunak eta hondartzak sartuko lirateke.
 - Itsasadarren eremuan, trantsizio-eremua eskuinaldearen eta ezkerraldearen arteko bi mugaketa-lerroen artean kokatuko litzateke, eta pentsa liteke mugaketa hori 2100. urtean itsasadarrek izango duten egoera kontuan hartuta egiten dela, RCP 8.5 agertokiari dagokion itsas mailaren igoeraren hipotesiarekin¹.
- Itsas aldea: Aztergai den zerrenda itsasoan sartuko da -50 kotaraino edo isobata 50 kotaraino, indarrean dagoen LAPan bezala.

Xedea:

Planaren helburua da 2007an onartutako Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapenak eguneratzea, ordutik onartutako arau-xedapen berriak kontuan hartuta, baina lurraldea klima-aldaketaren erronkara egokitze helburuak txertatuta.

Horrela, honako helburu orokor hauek planteatzen dira:

- Garapen Jasangarriari buruzko 2030 Agendak ezarritako helburuak eta jomugak betetzea.
- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) garatzea itsasertzeko zerrendan, bi lerrotan:
 - Itsasertzaren antolamendua xehatuz, Ingurune Fisikoa Antolatze Gidalerroen arabera eta Azpiegitura Berdearen arloan.
 - Klima-aldaketara egokitzeko baldintza gainjarri gisa, itsas mailaren igoerari erreparatuta.
- Jarduketa-programa integratu bat adostea, non jasoko baitira administrazioaren, hirigintzaren, leheneratzearen eta itsasertzeko espazioa klima-aldaketaren erronkara egokitzearen arloko ekimenak, bai tartean dauden erakundeen eta instituzioen arteko eskumen-erantzukizunaren ikuspuntutik, bai planteatu beharreko inbertsioen ekonomia- eta finantza-erantzukizunaren ikuspuntutik.

Helburu berezien artean, honako hauek nabarmentzen dira, besteak beste:

- Euskal itsasertza, oro har, natura-ondare baliotsutzat hartzea, eta horren gainean babes-neurriak hartzea, jarduerak ezartzeko dinamika garrantzitsuen ondoriozko inpaktuak arintzeko.
- Lurralde- eta hirigintza-plangintzan klima-aldaketaren ondorioak LAParen eremu osoa hartzen duen baldintzatzaile gainjarritzat hartzea.
- Lurralde-plan partzialak (aurrerantzean, LPP) egitean eta udal-mailako hirigintza-plangintzan bete behar diren irizpideak, gidalerroak eta oinarritzko arauak ematea, inpaktuen eta urrakortasunen gaikako kartografia aldeztu aurretik definituz eta inpaktu horiek murriztea ahalbidetuko duten antolamendu-proposamenak planteatuz.
- Kostaldean "azpiegitura berdea" kontzeptua sartzea, naturak eskaintzen dizkigun zerbitzuak babesteko eta indartzeko.
- LAGetan zehaztutako Itsas Bidea sustatzea, itsasertzeko inguruneak paisaia- eta ekologia-kalitatean oinarrituta gozatzea lortzeko.

Antolamendua:

Aurrerapeneko dokumentuak honako antolamendu-kategoria hauetan banatzen du bere eskumenen lurralde-eremua:

¹ Klima Aldaketaren Ebaluazioari buruzko Bosgarren Txostenak (AR5, 2014. urtea) 4 egoera edo kontzentrazio-ibilbide adierazgarri (RCP, ingelesez) identifikatzen ditu. Lau egoera horietatik laugarrenak aurreikusten du CO₂ kontzentrazio handiena 2100. urtean, eta indartze erradiatiboaren (IE) joera gorakorrek kuantifikatzen du agente naturalen eta antropogenikoen ekintzan izandako aldaketek eragindako energia-fluxuen aldaketa. Beraz, bosgarren txostenak proposatzen dituen 4 egoeretatik kontserbatzaileena da.

- Hiri-eremua eta hiriarteko komunikazio-azpiegituren eremua; eremu horretan, klima-aldaketara egokitzeko neurriak identifikatuko dira. Kategoriatu hauek daude:
 - Garatutako eremuak (ekipamendu- eta zuzkidura-zonak ere barnean hartuta).
 - Hirigintza-garapen berrientzat ahalmena duten esparruak:
 - Oinarritzko azpiegituren eta hiriarteko komunikazioen eremuak.
- Indarrean dauden LAGetako antolamendu-kategorien arabera definitutako honako kategoriatu hauek aplikatzen diren landa-eremua:
 - Babes berezia: Egungo LAPeko “Babes Berezi Zorrotze”ko eta “Babes Bateragarri Berezi”ko eremuak bateratzen ditu, eta Hezeguneen LAPean definitutako Babes Berezi Eremuak eta EAEko Ibaiek eta Errekak Antolatze LAGean definitutako Lehenetsitako Natura Intereseko Eremuen Ertzak gehitzen ditu.
 - Ingurumenaren Hobekuntza: Indarrean dagoen LAPeko eta Hezeguneen LAPeko “ekosistemak hobetzeko eremuak” eta “leheneratu beharreko eremu degradatuak” biltzen ditu.
 - Nekazaritza eta Basogintzaren LAPeko kategoriatu kontuan hartzen dituen gainerako lurraldea: “Nekazaritza eta abeltzaintza eta Landazabala Balio Estrategiko Handia”, “Nekazaritza eta abeltzaintza eta Landazabala. Trantsizioko Landa Paisaia” eta “Basoa”.
 - Azaleko urak babestea.

Kategorizazio horretan, natura-gune babestuen mugaketa errespetatu da, onartutako antolamendu-planak baitituzte, eta, beraz, antolamendu espezifikoak baitute.

Gainera, aurreko puntuetan adierazitako kategoriei gainjarritako baldintza hauek gehitzen zaizkie:

- Klima-aldaketari lotutako arriskuak: hiru mehatxu orokor planteatzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko kostalderako:
 - Itsas mailaren hazkundea: bi denbora-muga aurreikusten dira egungo egoeratik abiatuta: 2045. urtea eta 2100. urtea. Aukera horietako bakoitzerako bi agertoki planteatzen dira: RCP 4.5. eta RCP 8.5. Kontuan hartzen dira, halaber, olatuen eragina, ibaien uholdeak itsasadarretan duen eragina, maila freatikoa handitzea edo kolektore-sarerako mehatxua.
 - Uholde-hazkundea.
 - Tenperaturaren gorakada.
- Mehatxu horien ondoriozko eragintzat hartzen dira, besteak beste, hondartza, duna eta paduren azalera galtzea, hiriguneetako edo eremu urbanizagarrietako uholde-arriskua handitzea, kostaldea olatuen eraginpean egotea, itsasadarretako uholdeak eta abar.
- Akuiferoen kalteberatasuna.
- Arrisku geologikoak.
- Urez bete daitezkeen eremuak.
- Azpiegitura berdea.

Alternatibak:

0 alternatibaren azterketa (“Ez jardutea”) ere jasotzen da, eta horrek esan nahi du LAPa 2007an formulatu zen bezala mantentzea; horrek kostaldeko udalerri bakoitzaren Lurralde Plan Partzialen (LPP) eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) esku utziko luke klima-aldaketaren aurkako babes-lana. Aukera hori baztertu egiten da, hasiera batean, eta Lurraldearen Arloko Planaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzaren eremu osoa hartuko duen lurralde-antolamenduko prozesu bat egingo da, prozesu hori kasuan kasuko LPPek bermatu edo ñabartu ahal izateko, egokitzeko neurriak udal-plan orokorretan aplikatu daitezkeen, egokitzeko neurri horiek antzeko irismena izan dezaten lurralde osoan, eta klima-aldaketaren inaktuaren aurkako defentsa-maila berdina izan dadin.

1. alternatibak, Planean garatzen denak, lurraldea antolatze eredu eguneratu nahi du, LAG berriek aldeztu dituzten erabilera kategorizazioan eta araubidean oinarrituta, klima-aldaketaren arazoa gainjarritako baldintzatzaile gisa txertatuz, baita azpiegitura berdea ere, azpiegitura berdea tresna eraginkortzat hartuta lurralde-zatiketa berregituratzeko eta ekosistemen zerbitzuak indartzeko.

Alternatiben azterketarekin lotutako beste alderdi bat 2020tik aurrera berotegi-efektuko gasak isurtzeko politikaren arabera klima-aldaketaren denbora-agertokia aukeratzea da. Gai hori garrantzitsua da; izan ere, hautatutako agertokiaren arabera, klima-aldaketaren eraginak eta inpaktuak desberdinak izango dira, batez ere itsasoaren maila handitzearekin eta horrek kostaldean dituen ondorioekin lotutako ondorioak; eta, ondorioz, hartuko diren egokitzapen-neurrien izaera, ezaugarriak eta dimentsioak ere desberdinak izango dira.

Planak klima-aldaketaren eta aztertu beharreko denbora-tartearen hiru denbora-agertoki posibleak zerrendatzen ditu. Hiru agertoki horietatik kontserbatzaileena aukeratu du, hau da, 2100. urteko RCP 8.5 izeneko agertokia, nahiz eta 2100eko RCP 4.5 agertokia gomendatzen duen, LAParen Berrikuspenaren indarraldiaren barruan, egiaztatutako bizitza erabilgarria 50 urtetik beherakoa duten hirigintza-jarduketetarako, *planifikatutako aukera izanik 2100eko RCP 4.5 baino itsas maila handiagoei aurre egiteko*.

Proposamen berriak:

Laburbilduz, honako hauek dira Planean garatuko diren babes- eta antolamendu-proposamenak, aurkeztutako aurrerapen-dokumentuaren arabera:

- - EAEko kostaldea antolatzeko eta babesteko proposamenak:
 - Planaren eremua zehaztea, Itsasertzaren Babes eta Erabilera Jasangarriari buruzko eta Kostaldeei buruzko 22/1988 Legea aldatzen duen 2/2013 Legearen eragin-eremu osoaren definizioa betetz, eta eremua itsasadarretatik ibaian gora zabalduz, klima-aldaketaren ondorioz itsas maila handitzeagatik Itsas Lehorreko Jabari Publikoak izan dezakeen mugaren gehikuntza barne hartu ahal izateko.
 - Landa-eremuko antolamendu-kategoriak indarreko LAGetako EAEko Ingurune Fisikoaren Antolamendu Matrizean definitutakoetara egokitzea.
 - Euskal kostaldean ale gutxi duten edo izaera erreliktikoa duten bertako zuhaitz-masen (artadiak, ameztiak edo artelatzenak) Babes Berezikotako kategoria esleitzea.
 - Hondartzak kategorizatzea: hondartza naturalenei “Babes Berezia” aplikatuko litzaieke; eta “Sistema orokorrak. Espazio libreak”, hiri-kutsu handiena dutenei.
 - Lurraldearen Arloko Planean sartzeari «Itsasoaren Bidea» izeneko ibilbidea, motorizatu gabeko mugikortasun-ibilbide erraz gisa pentsatua, kostaldea eta itsasoa EAEko kostaldeko kostaldean zehar gozatzeko.
 - Jaizkibelen eta Ulian Natura 2000 Sarea dagokion itsas ingurunearen eremura zabaltzea.
 - Erabilera-araubidearen proposamena (hasierako onespeneraren agiriaren aurkeztutako da). Indarreko LAGak onartzeak erabilaren erregulazio berria egitera behartzen du, Ingurune Fisikoaren Antolamendu Matritze berriaren arabera, erabilera LAP honen eremuan zuzenean aplikatzeko moduan definituz eta klima-aldaketak horietan duen eragina kontuan hartuz.
- Klima-aldaketara egokitzeko proposamenak: Egokitzapen-neurriak eta itsasertzeko zerrenda antolatzeak irizpideak ezartzea, beharrezkoak direnak klima-aldaketak eragindako efektuen ondorioz ustez sortuko diren inpaktuei aurre egiteko. Planak hainbat proposamen egiten ditu hiri-eremurako eta azpiegiturarako, bai eta hondartza, padura eta dunetarako ere.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak

Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurraldearen Arloko Plana berrikusi eta egokitzeko, hura formulatu zenetik igarotako denbora hartu behar da oinarritzat, eta horrek behar besteko tarte ematen du aplikazioaren emaitzak baliozkotzeko. Horrez gain, lurraldearen antolamendu-eredua eguneratu behar da Lurralde Antolamenduaren Gidalerro berriek aldeztzen dituzten kategorietara eta erabilaren araubidera; izan ere, adierazten dute beharrezkoa dela Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurraldearen Arloko Plana berrikustea, aplikazio-eremuan azpiegitura berdea sartzeko eta kostaldeko eremuetan itsas maila eta muturreko olatuak igotzeak eragindako ondorio kaltegarrietara egokitzeko neurriak identifikatzeko.

Azaldutakoaren arabera, ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola

ezartzen dituen oro har onartzen diren araudi, estrategia eta programetarik datozen ingurumen-helburuak; horiek *Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2018ko azaroaren 13ko Ebazpenaren D) apartatuan adierazten dira, zeinaren bidez formulatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko ingurumen-adierazpen estrategikoa*. Apartatu horretan, *LAGetarik eratorritako plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluaziorako jarraibide orokorrak ezartzen dira*, eta ebaluazio hori zuzendu behar duten helburuak, printzipioak eta irizpideak formulatzen dira.

Kontuan hartuko dira, halaber, *Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legea* adierazitako ingurumen-helburuak. Helburu horiek lehen aipatutako ebazpenaren ondoren onartu ziren. Era berean, Planaren xedeari aplikatu dakizkiokeen neurrian, kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzaren "Osasun Sailaren 2021-2024 Esparru Estrategikoaren" helburuak eta, bereziki, osasun-ekitatearen helburua, aintzat hartuta gizarte-egoera ahulenean dauden pertsonak ingurumen-kalitate txarragoko inguruneetan, eta, agian, klima-aldaketaren ondorioekiko kalteberagoetan bizi ohi direla.

Planak legegintzatik eta ingurumen-programetarik eratorritako printzipioak integratzen dituen heinean, ingurumen-izaera bereziki duten helburuak planteatzen ditu. Hala eta guztiz ere, itsasertzeko zerrenda antolatzeke erabileren eta klima-aldaketara egokitzeke egiturazko neurrien araubidea garatzeke eragin kaltegarriak izan ditzake ingurumenean.

3. Esparru geografikoa eta ingurumen-garrantziko eremuak.

Planaren lurralde-eremuak hiru eremu bereizten ditu, honela definituta:

- Lehorreko eremua: 500 metroko zabalerako lurralde-zerrenda bati dagokio (Itsasertzaren Babes eta Erabilera Jasangarriari buruzko eta Kostaldeei buruzko 22/1988 Legea aldatzen duen 2/2013 Legearen arabera zehaztutako eragin-eremua), Itsas Lehorreko Jabari Publikoaren (ILJB) mugaketa-lerrotik abiatuta neurtuta, baina itsas mailaren igoera kontuan hartuta.
- Trantsizio-eremua: Bi zerrendak osatzen dute, itsasadarra edo itsasoa den kontuan hartuta:
 - Itsas-eremuan, trantsizio-eremua Itsasoko Itsasertzak osatzen du, eta honela definitzen da: itsasoaren batez besteko mailaren eta ILJBren mugaketaren arteko azalera. Kasu horretan, itsaslabarrak, ILJBren barruan integratutako dunak eta hondartzak sartuko lirateke.
 - Itsasadarren eremuan, trantsizio-eremua eskuinaldearen eta ezkerraldearen arteko bi mugaketa-lerroen artean kokatuko litzateke, eta pentsa liteke mugaketa hori 2100. urtean itsasadarrek izango duten egoera kontuan hartuta egiten dela, RCP 8.5 agertokiari dagokion itsas mailaren igoeraren hipotesiarekin.
- Itsas aldea: Aztergai den zerrenda itsasoan sartuko da -50 kotaraino edo isobata 50 kotaraino, indarrean dagoen LAPan bezala.

Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak.

Planaren lurralde-eremuan bereziki garrantzitsuak diren esparruak daude, haien natura-balio bikainak, kultura-balioak, edo gaur egungo zein etorkizuneko gizakien osasunerako eta ingurumenerako dituzten arriskuak direla-eta.

Aipatutako lehenengo guneen artean Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legea (abenduaren 13ko 42/2007) aplikatzeke eratorritako ingurumena babesteko araubideren bat duten guneak daude. Lege hori natura kontserbatzeko eta ondare naturala eta biodibertsitatea babesteko alorrean oinarritzko legeria da. Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategia onartzen duen Legegintzako Dekretuak (apirilaren 15eko 1/2014) oinarritzko legediak babestutako natura-guneen sarean sartzen ditu biotopo babestuak eta aparteko zuhaitzak. Era berean, kategoria honetan sartu behar dira Plan Hidrologiko Nazionalari buruzko uztailaren 5eko 10/2001 Legearen babesean babestutako ibai-espazioak.

Kategoria horretan honako gune eta elementu hauek daude:

- Parke naturalak.
- Paisaia babestuak, hauek izango lirateke: administrazio eskudunek, aplika daitekeen plangintzaren bidez, dituzten balio natural, estetiko eta kulturalengatik eta Europako Kontseiluaren paisaiaren Hitzarmenarekin bat, babes berezia merezi dutela uste duten guneak.
- Biotopo babestuak.
- Aparteko zuhaitzak.
- Natura 2000 Sarea (Batasunaren Garrantzizko Lekuak, Kontserbatzeko Eremu Bereziak eta Hegaztia Babesteko Eremu Bereziak):
- Nazioarteko hitzarmen eta akordioetan ezarritakoarekin bat formalki izendatutako naturaguneak eta, bereziki, hauek:
 - Ramsar hezeguneak.
 - Urdaibai Biosferaren Erreserba.
 - Euskal Kostaldeko Geoparkea.
- Ibaietako natura-erreserbak.
- Korridore ekologikoak: planeamenduak definituta Natura 2000 Sarearen koherentzia ekologikoa eta konektibitatea hobetzeko, gune horiek fauna eta flora basatien espezieen korridore ekologikoekin eta migrazioarako, banaketa geografikorako eta elkartruke genetikorako oinarritzako diren edo funtsezko garrantzia duten paisaiako eta lurreko zein itsasoko elementuekin osatzen dira.

Gainera, kontuan hartuko dira indarrean dagoen EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren babes bereziko eremuak eta ingurumen-balio nabarmenak dituzten eta katalogo eta inbentarioetan jasota dauden edo etorkizunean jaso daitezkeen beste eremu batzuk. Besteak beste:

- Mehatxatutako flora edo faunako espezieen banaketarako interes berezia duten eremuak, Mehatxatutako Espezieen EAEko Katalogoan jasotakoak.
- EAEko Basoen Inbentarioan jasotako baso naturalak eta erdinaturalak.
- EAEko paisaia berezi eta nabarmenen katalogoaren eta paisaien katalogo eta gidalerroen arabera paisaia-balioagatik katalogatutako inguruak.
- EAEko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan dagoeneko bildu diren guneak.
- EAEko Hezeguneen Lurraldearen arloko Planeko beste hezegune batzuk, babes bereziko eremuetatik kanpo.
- EAEko Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen Kudeaketarako Baterako Planeko Interes Bereziko beste Gune batzuk.
- Batasunaren intereseko habitatak dituzten eremuak (92/43/EE Zuzentarauaren I. eranskina), eta, bereziki, lehentasunezko habitatak, Natura 2000 Saretik kanpo.
- Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan ezarritako hegazti mehatxatuentzako beste gune interesgarri batzuk. Agindu horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira eta abifaunaren babes-eremuak —non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatutako edo talka ez giteko neurriak aplikatuko baitziren— argitaratzen dira.

Halaber, ingurumenaren aldetik nabarmenak dira balio agrologiko handiko lurzoruak eta beste eremu batzuk, Kantauri Ekialdeko eta Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrologikoen Plan Hidrologikoetan ezarritako Eremu Babestuen Erregistroaren barruan sartzen ez direnak, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokion eremuan; bai eta lurralde- eta hirigintza-plangintzatik eratorritako babes-araubideren bat duten natura-guneak ere, hala nola Txingudiko Eremuko Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatze Plan Bereziak antolatutako eremuak.

Kultura-balio handia dutenen artean kultura-ondarearen zati direlako kalifikatuta edo inbentariatuta dauden eremuak edo ondasunak daude, bai eta ustezko arkeologia-eremuak ere. Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen babesean kultura-ondasun deklaraturako ondasunek eta higiezinak babesa izango dute: Sailkatutako Kultura Ondasunen Erregistroan sartutakoek, babes berezia, eta babes ertaina EAEko Inbentario Orokorrean sartutakoek. Gainera, beste ondasun batzuk ere egon daitezke, eta, beraz, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Zentroan kontsultatu beharko da.

Ingurumen-arrisku garrantzitsuak dituzten eremuen artean, urak hartzeko 10 eta 100 urteko errepikatze-denbora duten eremuak daude, baita 500 urteko errepikatze-denbora dutenak eta lehentasunezko Fluxuko Eremuak, eremu higagarriak edo higitzeko arriskua dutenak, kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak pairatzen dituzten edo pairatu dituzten lurzoruak eta akuiferoak kutsa ditzaketen eremuak ere.

Plana egiteko, kontuan izan beharko dira aipatutako garrantzi desberdineko guneak, bai eta ingurune fisikoa zuzenean eraldatzen duten jarduketak garatzeko horietatik eratortzen diren baldintzatzaileak ere.

4. Jarduketak egiteko desegokiak diren eremuak.

A priori, ingurumen fisikoan efektuak dituzten jarduketak –besteak beste, egiturazkoak– kokatzeko eremu desegokitza joko dira: aurreko apartatuan jasotako ingurumen- eta kultura-arlo garrantzitsu guztiak, bai eta beste hainbat eremu ere, non erabilera edo neurri jakin batzuk –Plana Berrikustean aurreikusitakoekin pareka daitezkeenak– mugatu edo debekatzen baitituzte dagokien lurralde-plangintzak eta eremu funtzionalen LPPk, itsasertza, hezeguneak, nekazaritza eta basoa babestu eta antolatzeko LAPk eta ibaiertzak eta errekek babestu eta antolatzekoek–, Natura 2000ko eremuei lotutako beste arau-xedapen batzuk –esaterako, hegaztientzako kontserbazio-eremu bereziak eta babes bereziko eremuak (HKEB), ur-ingurumenari lotuak– edo beste eremu batzuei lotuak: natura-baliabideen antolamendu-planak eta parke naturalen (eta biosfera-erreserbaren) erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak; eremu babestuetako plan bereziak, espezie mehatxatuak kudeatzeko planak. Zehazki, desegokitza joko da Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatetan eta flora mehatxatuko populazioak dauden lurralde-eremuetan edo fauna mehatxatuko espezieen ugalketa-lekuetan jarduketa jakin batzuk ezartzea.

Ondorioz, naturaren, kulturaren edo ingurumen-arriskuaren ikuspuntutik garrantzi gutxiak diren baina teknikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren beste espazio batzuk lehenetsi beharko dira, ingurune fisikoan ondorio kaltegarriak dituzten jarduketak hartzeko.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.

Jarraian laburbiltzen da zein diren ingurumen-alderdi garrantzitsuenak izapide honetan jasotako txostenetan: ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulta.

Kontsiderazio orokorreki dagokienez:

- Uste da dokumentua sakon berrikusi beharko litzatekeela, natura-ingurunea, klima-aldaketa eta uholde-arriskua kudeatzeko eskumena duten Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin lankidetzan eta koordinatuta. Dokumentuaren terminoak aztertu beharreko gaiei buruz eskumena eta ezagutza duten administrazioekin adostu beharko lirateke. Zehazki, itsasoaren batez besteko mailaren gorakada-balioak eta, hain zuzen ere, «Kostaegoki» proiektuak hartutakoekin, 2025 eta 2100 urteetarako urpean gera daitezkeen eremuen mapak.
- Urbanizatu gabeko eta azpiegiturarik gabeko kostaldeko lurraldeen azalera handiena bermatu beharko litzateke; izan ere, klima-aldaketaren aurkako borrokan ekarpenik onena kostaldeko azalera handiagoa babestea da, defentsa-obra egitea baino erabilgarriagoa. Planak bere erregulazio-eremuko lurralde osoan urbanizazio berriak mugatu beharko litzateke, eta eremu arautuan urbanizazio eta artifizializazio ehunekoaren ingurumen-adierazle estrategiko bat ezarri beharko litzateke.
- ILJB lerrotik kilometro batera handitu beharko litzateke eremua, kostaldeari lotutako natura-ondareko elementu baliotsuen babesa bermatzeko. Gainera, lurzoru guztia arautu beharko litzateke, hiri-lurzoru finkatua izan ezik, baita eraikitzeko aurreikusitako espazioetan ere, horiek mugatu edo baldintzatu egin beharko bailirateke.
- LAPak tresna bat izan beharko luke kostaldeko espazio jakin batzuetan dagoen urbanizazioa, Kostaldeko Administrazioak emandako titulu gaitzailerik gabe edo indarrean dauden hirigintza- eta ingurumen-araudiak argi eta garbi bete gabe, gerta dadin. Horretarako, aipatutako azpiegiturei buruzko lan zehatza egin behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertz Mugartearekin koordinatuta.

- Uste da neurriak eta jarduera-proposamenak horrelako plan baten irismentik harago doazela, espezifikoei direlako. Tokiko ezarpenari buruzko azterlanak egiteko, uholdeen ezaugarri hidraulikoak aztertu eta definitzeko eta klima-aldaketara egokitzeko eskumena duten erakundeek ikuspegiak eta emaitzak integratu behar dira. Gaia erakundeek arteko lankidetzaren bidezko koordinazio-mekanismoen bitartez landu beharko litzatekeela uste da.

Uren materien ikuspegitik:

- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeak LAPek itsasadarretako uholde-arriskuko lurzorurako ezarritako araudia funtsezkoa da, Itsasertzaren Lurraldearen Arloko Planaren berrikuspenaren espiritua kontuan hartuta, klima-aldaketak eragin ditzakeen ondorioak murrizten lagunduko duen lurzoruen antolamendua bermatzeko. Horregatik, koordinazioa beharrezkotzat jotzen da, eta horretarako bi bide proposatzen dira:
 - Ibai eta Erreken LAPera igortzea itsasadarren ertzetan, lur gaineko urak babesteko lurzoru urbanizazinean eta hiri-lurzoruetan eta lurzoru urbanizagarrietan.
 - Araudi propio bat ezartzea, orain arte aplikatutakoarekin bat datorrena eta hobetu daitekeena. URAK jakinarazi du proposamenak dituela.
- Akats teknikoak antzeman dira: egindako lanak kontuan hartzea falta da (adibidez, Kostaegoki, uholde arriskua kudeatzeko planak), kontuan hartutako agertoki klimatikoak eta lortutako emaitzei lotutako ziurgabetasun-falta, kartografian xehetasun-falta (adibidez, egun sakonuneak diren eremuak, etorkizunean Ibarzaharra eta Zorrotzaurren kota seguruak lortu behar dituztenak, edo kota seguruak perimetroen inguruan dauden uholde-arriskuko guneak.), irimotasun handiegia irizpide arbitrarioetan oinarritutako emaitzetan.
- Alde batera utzi dira EAEko itsasertzeko uholdeei buruzko zuzentaraua garatzen duten dokumentu teknikoak eta klima-aldaketak euskal kostaldean duen eragina aztertzeak lhoriek koordinatutako aurrekari tekniko garrantzitsuak. Gainera, ez dira kontuan hartu kostaldeko eremuen kudeaketa integratua osatzen duten dokumentuak.
- Klima-aldaketaren ondorioen deskribapenean zorrotasun falta dagoela uste da. Itsas mailaren igoerak ibai-tarteetan izango duen eragina gaizki adierazi da. Adibidez, ez dira kontuan hartu uholdeen aurka babesteko obrak.
- Kontuan hartu beharko dira eragindako bi demarkazio hidrografikoen uholde-arriskua kudeatzeko planetan ezarritako neurriak.

Natura-ondareari dagokionez:

- Egokitzen jotzen da antolamendu-kategoriak sinplifikatzea eta homogeneizatzea eta Azpiegitura Berdea sartzeko, LAPa LAGetara egokitzen duen eta haren interpretazioa eta aplikazioa errazten duen neurrian. Hala ere, natura-gune babestu guztiek antolamendu-kategoria bera izan beharko luketela uste da, ahal dela, ahalik eta babes handiena bermatzeko moduan. Beste aukera bat da adieraztea NGBak dagozkien kudeaketa-dokumentuetan ezarritakoaren arabera arautuko direla. Aukera horietako edozein zuzena dela ematen du. Adierazten da Natura 2000 Sareko Astondoko dunak, Lea ibaia, Artibai ibaia eta Barbadun ibaia eremuek behin betiko onarpena dutela egungo LAPa onartu ondoren.
- Natura-gune babestuak babesteko eremu periferikoak eta horiek babesteko kautelazko araubidea sartu eta kontuan hartu beharko dira.
- Gaur egun, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak txosten bat egin du itsasoaren eta lehorren arteko jarraitutasun ekologikoari buruz, Natura 2000 Uria Sareko eta Jaizkibelgo eremuetan, erreferentzia gisa Getaria-Higer kostaldeko ur-masaren mugaketa hartuta, eremu horietan deklaraturako natura-gune babestuen azalera handitze aldera.
- Aurrerapeneko gainerako proposamenei dagokionez –itsas bidea, padurak handitzea, dunak egonkortzea, eta hiri-ingurunean hartu beharreko neurriak–, Aurretiazko Azterlanen dokumentuaren edukiari dagokionez aurrera egin bada ere, oraindik ez dira zehaztu, ezta lurraldean kokatu ere, eta, beraz, ezin da balioetsi egokia den ala ez. Ulertzen da LAPa definitzeko fase aurreratuagoetan baloratu ahal izango direla gehien proposatzen diren neurriak, natura-ondarean duten eraginari dagokionez. Zehazki, aurreratzen da itsasoaren bideak ez diela eragin behar flora mehatxatuko populazioak edo fauna mehatxatuko espezieen ugalketa-lekuak dauden

lurraldeko eremuei, ez eta paisaia-intereseko lekuei ere; gainera, urbanizazioa handitzea baztertu behar da.

- LAParen ondorengo faseetako jarduketak zehazte aldera, interesgarria litzateke koordinazioa lortzea –ahal den neurrian– antolamendu- eta kudeaketa-planetan aurreikusitako neurriekin eta LAParen antolamendu-eremuan dauden natura-gune babestuetako Natura 2000 Sareko espazioak kontserbatzeko tresnekin. Horri esker, ingurumen-aldagaia sartu ahal izango litzateke erabakiak hartzerakoan, eta kasu bakoitzean irtenbiderik egokiena hartu ahal izango litzateke, kostaldeko natura-ondarearen babes eraginkorra bermatzeko klima-agertoki guztietan.
- Erakunde batzuek egoki irizten diote agertoki kontserbadorea aukeratzeari (2100eko RCP 8.5 agertokia), baina beste erantzun batzuetan, hartutako artean tarteko hirugarren agertoki bat kontuan hartzea proposatzen da, berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea aurreikusten baita, baina 2050ean neutraltasun klimatikoak bermatuko lukeen intentsitaterik gabe. Neutraltasun-helburu hori lortzea zaila denez, aukera asko baloratzea komeni da.
- Beharrezkotzat jotzen da araudietan ezarritako zenbait zehaztapenekiko bateragarritasuna baloratzea, hala nola, besteak beste, Bilbo Metropolitarrako LPP, Urdaibaiko EKZP, Lamiakoko dartsenaren inguruko Paisaiako Ekintza Plana eta 2012ko irailaren 3ko Agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Uribe-Kosta-Butroe eremuko NBAP egiteko prozedurari hasiera ematen diona.
- Zenbait neurri zehatz proposatzen dira, hala nola Lemoizko Basordas kala berreskuratzeko proposamenari eustea edo duna naturalak berreskuratzea, Lagako hondartzan okupazioa askatuta.
- Lehentasunezko BIHen azalerak Babes Bereziko kategoriaren mugaketan sartzeko aukera baloratzea eskatzen dizuegu. Horretarako, kartografia berrikusi eta eguneratu beharko litzateke. Beharrezkotzat jotzen da, halaber, Babes Bereziko kategorian sartzeko flora mehatxatuko populazioak dauden lurraldeko eremuak edo fauna mehatxatuko espezieak ugaltzeko lekuak.
- Eskatzen da eraikuntza-erabileren eta defentsa-jarduketaren erregulazioa udal-plangintzarako erregulazio loteslea den zehazteko, denboraren, itsasadarreko, kostaldeko edo padurako eremuen eta hirigintza-ikuspegitik lurzorua ekoizteko erabileraren arabera. Beharrezkotzat jotzen da azterketa bat egitea, besteak beste, uren arloko araudian eta plangintza hidrologikoan (Kantauri Ekialdeko Demarkazioaren Plan Hidrologikoa eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana) uholde-arriskuko eremuetan ezarritako erabileren erregulazioari buruz.

Kultura-ondareari dagokionez:

- Plan honetatik sortuko den azpiegitura-proiektu bakoitza sakonago eta banan-banan aztertu behar dela uste da, Kultura Ondarearen Zerbitzuak dagokion txostena egin dezan.
- Jakinarazten da, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen arabera, araudi sektorialak aplikatzeko ondasunen kultura-balioak kontserbatu beharko direla.
- 1990eko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen babesean kultura-ondasun deklaraturako ondasunek eta higiezinak babes berezia izango dute Sailkatutako Kultura Ondasunen Erregistroan sartutakoek, eta babes ertaina, EAEko Inbentario Orokorrean sartutakoek. Gainera, beste ondasun batzuk ere egon daitezke, eta, beraz, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Zentroan kontsultatu beharko da.

Ingurumen-arriskuei dagokienez:

- "Osasun Sailaren 2021-2024 Esparru Estrategikoaren" helburuak ingurumen-helburu eta -irizpide estrategikoetan txertatzea iradokitzen da, harreman hori eta haren garrantzia ikusarazten laguntzeko, lurralde-plangintzatik udal-plangintzaraino zabaldu behar baita. Gainera, osasun-ekitatearen helburua dokumentuan sartzeko proposatzen da, kontuan hartuta gizarte-egoera ahuleko pertsonak ingurumen-kalitate okerragoko inguruneetan bizi ohi direla, eta agian klima-aldaketaren ondorioekiko kalteberagoak direla.
- Garrantzitsua da klima-aldaketan inplikaturako aldagaien jarraipena egitea, egoera posibleei aurrea hartu ahal izateko. Horretarako, tresna hauek ditugu:
 - Baldintza ozeano-meteorologikoen zaintza- eta alerta-sarea.
 - Itsasertzaren Kutsadurari Aurre Egiteko Euskadiko Larrialdi Plan Berezia "Itsasertza". Dokumentu honetan jasotako EAEko kostaldearen arriskugarritasunaren eta kalteberatasunaren azterketa kontuan hartu beharko da Planaren inaktuak eta presioak aztertzean.

- Babes zibileko informazio- eta alerta-sarea.

6. Ingurumen-azterlan estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Planean jasotako hainbat zehaztapenek indarreko Itsasertza Babesteko eta Antolatze LAPeen ezarritakoak aldatuko ei dituzte. Ingurumen-ebaluazio berriak jarduketa-proposamen berriek sortutako efektu espezifikoak hartuko ditu oinarri. Alegia, kontuan hartu behar diren ingurumenaren gaineko efektuak honako hauek izango dira soilik: planak jasotzen dituen proposamen berrien edo dagoeneko existitzen direnen aldaketen ondoriozkoak; eta ez dira kontuan hartuko onartutako plangintza aldatu izan ez balitz ere gertatuko liratekeen efektuak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorritik, garatuko diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

1. Proposatutako planaren deskribapena. Edukia, helburuak eta egokiak diren beste plan eta programa batzuekiko harremanak.
2. Aukerak hautatzeko prozesua.
3. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea. Gaur egungo egoera.
4. Ingurumenean eragin daitezkeen ondorio esanguratsuak.
5. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.
6. Ingurumena zaintzeko programa
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzeko den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste dugu ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, IAE edo Azterketa) hainbat alderdi landu behar dituela ahalik eta zabalena eta xeheena; honako hauek, zehazki:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen efektu kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak.

a. Zehaztuko da zer arau-esparruk arautzen duen Plana onartzeko prozedura, eta identifikatuko da nor den behin betiko onespeneraren organo sustatzailea, organo sustatzailea eta organo substantiboa.

b. Identifikatuko da ea zer plan edo programa dauden hierarkikoki planaren gainetik, zeinen helburu eta zehaztapenak haren bidez garatzen baitira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Hierarkian Plana baino goragoko planak edo programak onartzeko egintzaren eta dataren erreferentzia emango da, eta plan edo programa horiei ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin zaien ala ez zehaztuko da; hala bada, plan edo programa horien ingurumen-adierazpen estrategikoan ezarritako irizpideak eta zehaztapenak jasoko dira, Planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak direnak. Gutxienez, honako plan, arau edo estrategia hauek hartu beharko dira kontuan:

- Espainiako kostaldearen klima-aldaketara egokitzeko estrategia²

² https://www.miteco.gob.es/es/costas/temas/proteccion-costa/estrategiaadaptacionccaprobada_tcm30-420088.pdf

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) 2019.
- Eremu Funtzionalen Lurralde Plan Partziala: Bilbo Metropolitarra; Mungialdea; Busturialdea-Artibai; Debarrena; Urola Kosta; Donostialdea-Bidasoa Beherea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurraldearen Arloko Plana.
- EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana.
- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrologikoko Plan Hidrologikoa
- Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana

Halaber, uholdeak eta EAEko itsasertzeko natura-guneak kudeatzeko garrantzitsuak diren dokumentuak ere kontuan hartu beharko dira. Besteak beste, lhobek enkargatutako Kostaegoki azterlanaren edukiarekin eta Uholdeei buruzko Zuzentzarauarekin lotutako dokumentuekin alderatu beharko da (bereziki, Uholde Arriskua Kudeatzeko Planekin).

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzatik jasotako erantzuna kontuan hartuta, proposamenak zehaztapen hauekin bateragarriak diren baloratu beharko da:

- Lamiakoko dartsenaren inguruko Paisaiaren Ekintza Planeko proposamenak sartzea baloratuko da. Leioan, Lamiakoko ibarra eta Udondo ibaiaren itsasadarra daude, eta etorkizuneko padurak sortzeko erreserbatutako eremua da.
- Bilbo Metropolitarrako LPPren Aurrerapeneko azpiegitura berdearen proposamena kontuan hartuko da.
- Urdaibaiko EKZPren eremuko hiriarteko komunikazio-azpiegituren mugak hartuko dira kontuan.
- Kontuan hartuko dira Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko irailaren 3ko Aginduan ezarritako zehaztapenak. Agindu horren bidez, Uribe-Kosta-Butroe aldeko NBAP egiteko prozedura hasten da.

c. Planaren bitartez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira. Azterketan, laburpen txiki bat jasoko da Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Gainera, azterketak labur-labur azaldu beharko du nola hartu diren kontuan, plana egitean, txosten honetako 3. apartatuan ingurumena babesteko jasotako helburuak eta jasangarritasun-printzipio eta -irizpideak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak era espezifikoan justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen arestian azaldutako ingurumen-helburuak eta nola laguntzen duen ingurumenaren gaineko eragin negatiboak minimizatzen, proposatzen dituen erabileren erregimenetik eta egiturazko edo bestelako neurrietatik erator daitezkeen ondorio negatiboak; hori guztia Planaren ezaugarriak antolatzeke dokumentu baten berezko xehetasun-mailarekin.

Urbanizatu gabeko eta azpiegitarik gabeko kostaldeko lurraldeen azalera handiena bermatu beharko litzateke, klima-aldaketaren aurkako borrokan ekarpen garrantzitsua baita kostaldeko azalera handiena babestea. Azterlanak baloratu behar du Planak nola integratzen duen urbanizazio berrien mugatzea bere erregulazio-eremuaren lurralde osoan; eta, ezarpena kontrastatzeko, eremu arautuan urbanizazio eta artifizializazio ehunekoaren ingurumen-adierazle strategiko bat ezarri beharko du.

Ilido horretan, lurraldea artifizializaziotik babesteko, LAPak identifikatu beharko luke kostaldeko administrazioak gaitzen duen titulurik gabeko edo indarreko hirigintza- eta ingurumen-araudiak argi eta garbi bete gabeko urbanizazioa.

Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta estrategietan, baita planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan (Europar Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak) ere, Plana diseinatzeko aplikagarriak direnean.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planak proposatzen dituen antolamendu-kategoriak zehaztu eta lokalizatuko dira, hala nola:

- Hiri-eremua eta hiriarteko komunikazio-azpiegituren eremua.
 - Garatutako eremuak (ekipamendu- eta zuzkidura-zonak ere barnean hartuta).
 - Hirigintza-garapen berrientzat ahalmena duten esparruak:
 - Oinarrizko azpiegituren eta hiriarteko komunikazioen eremuak.
- Landa-eremua, non indarrean dauden LAGetako antolamendu-kategorien arabera definitutako kategoriak aplikatzen baitira.
- Baldintzatzaile gainjarriak.

Kategorizazio horri dagokionez, eta Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak emandako txostenaren arabera, hasiera batean positibotzat jotzen bada ere antolamendu-kategoriak sinplifikatzea eta homogeneizatzea eta landa-eremurako proposatzen den Azpiegitura Berdea Aurrerapeneko dokumentuan sartzea, kontuan hartuko da natura-gune babestu guztiek antolamendu-kategoria bera izateko aukera, ahal dela, babes handiena ziurtatzen dien kategoria, edo esplizituki adieraztea NGBak dagozkien kudeaketa-dokumentuetan ezarritakoaren arabera arautuko direla. Natura-gune babestuak babesteko eremu periferikoak eta horiek babesteko kautelazko araubidea sartu eta kontuan hartu beharko dira.

Lehentasunezko Intereseko Habitaten azalerak eta flora mehatxatuko populazioak dauden lurraldeko eremuak edo fauna mehatxatuko espezieen ugalketa-lekuak Babes Berezikotako kategoriaren mugaketan sartzea baloratuko da.

Deskribatuko da zer aurreikuspen dituen planak lurzorua eta baliabideak erabiltzeko araubideari dagokionez, eta zer ekintza edo proiektu aurreikusten den Plan garatzeko. Beharrezkotzat jotzen da azterketa bat egitea, besteak beste, uren arloko araudian eta plangintza hidrologikoan (Kantauri Ekialdeko Demarkazioaren Plan Hidrologikoa eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana) uholde-arriskuko eremuetan ezarritako erabileren erregulazioari buruz.

Planak erabilera, jarduera eta proiektu jakin batzuetara bideratutako espazioen definizioari buruzko zehaztapenak jasotzen dituenean, dagokion eskalaren eraginpeko lurralde-eremuak deskribatu eta kokatuko dira.

Hala dagokionean, Planaren estrategia, gidalerro eta proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektuen ezaugarriei buruzko aurreikuspena egingo du azterlanak. Hain zuzen ere, Planaren kokapenari, tipologiari, tamainari, funtzionamenduari eta baliabide naturalen esleipenari buruz jasotako zehaztasunak aztertuko dira, Planaren esparruan etorkizunean gauzatuko diren proiektuei dagokienez.

Epigrafe honetan jasotako informazioa eskala egokian jasoko da kartografian, eta erakutsiko du zein den lurraldearen erabilera, bai eta planeko zer ekintzak, aurreikuspenek eta jarduketak eragin ditzaketen ondorio esanguratsuak ingurumenean. Hala badagokio, informazio kartografikoa jaso beharko da proiektuen kokapen eta tamainari buruz.

Bestalde, planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako planak edo proiektuak identifikatu beharko ditu IAEk, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean sortutako eraginak gutxitzeko gidalerroak ezartzeko.

b. Ingurumenean eragina izan dezaketen planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienetik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa.

c. Plana onartu ondoren, behin betiko garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, bai eta planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta / edo -proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

d. Nolanahi ere, plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

e. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, bai eta ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituen: eremuaren mugaketa eta jarduketaren kokapena, pdf eta shape formatuetan.

6.2. Plangintza-alternatibak

Alternatibak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitu bat txertatuko da, bideragarritasun teknikoak, ekonomikoak eta ingurumen arlokoak eta LAParen berrikuspenaren helburuekiko bat-etortzea eta proportzionaltasuna justifikatuko dituen, batez ere ingurumen-helburuekin lotuta. Era berean, 0 alternatiba edo esku ez hartzeko alternatiba ere hartuko da kontuan. Kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

Laburpen bat jasoko da adierazteko zergatik baztertu diren plangintza-aukera batzuk eta zergatik hautatu den azkenean proposatutako aukera. Azterketa horretan ebaluazioa egiteko modua deskribatuko da, baita aurkitutako zailtasunak ere; esate baterako, eskatutako informazioa biltzean beharbada aurkitzen diren gabezia teknikoak, edo ezagutza- eta eskarmentu-falta.

Ebaluazioak erreferentzia-esparru gisa izango du ingurumen-alderdi garrantzitsuen balizko bilakaera, LAPa aplikatzen ez bada (0 alternatiba), eta sakonean aztertuko du indarrean dagoen LAParen eta haren berrikusketaren artean dauden aldeak. Garrantzi berezia emango zaie, hala badagokio, LAParen berrikuspenak ingurune fisikoaren antolamendu nagusian eta zuzenean aplikatzen diren bestelako arauetan sartzen dituen aldaketei eta aldaketa horiek ingurumenaren ikuspuntutik dakartzaten aldaketei.

Dagokigun kasuan, klima-aldaketara egokitzeke proposamenetarako denbora-agertoki kontserbadorea aukeratzea (2100. urteko RCP 8.5 agertokia) egokia dela uste bada ere, espedientearen dauden txostenen arabera, hala badagokio, tarteko hirugarren agertoki bat baloratu beharko da, negutegi-gasen emisioen murrizketa bere gain hartuko lukeelako, baina 2050ean neutraltasun klimatikoa zeharo bermatu gabe, izan ere, neutraltasun-helburu hori lortzea zaila denez, komenigarria da beste aukera batzuk baloratzea.

ILJBren lerrotik kilometro batera eremua handitzeko aukera baloratuko da, Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuaren iritziz, kostaldeko inguruneari lotutako natura-ondarearen babes bermatzeko.

Behar denean, modu kartografikoan jasoko dira aztertu diren aukerak.

6.3. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea

Azterlanak deskribatu beharko ditu zein diren ingurumenak egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak Planak eragiten duen eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren eraginpeko esparrua, antolamendu-esparru osoa izateaz gain, esparru horren ingurunerik hurbilena ere izango da, eta ingurune hori mugatuko da Planaren ekintzek ingurumen-efektu garrantzitsuak izan ditzaketen gunetara. Planaren antolamendu-esparrua nabarmen gaintzen duten gunek azalduko dira, soilik inguru horietan ingurumen-eragin nabarmena aurreikusi bada.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana bere osotasunean kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.3.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Azterketak ingurumenaren egungo egoeraren alderdi esanguratsuak deskribatu beharko ditu, eragin nabarmenak jasan ditzaketen guneen ingurumen-ezaugarriak zehaztuz eta LAParen berrikuspenera egin ezeari gune horiek izan dezaketen bilakaera azalduz, klima-aldaketa bera ere kontuan izanik.

Era berean, garrantzitsua izan daitekeen edozein ingurumen-arazo identifikatu behar da, baita ebazpen honetako 3. apartatuan ingurumenaren aldetik nabarmentzat jotako edozein gunerekin erlazionatutako arazoak ere.

Ekosistemen zerbitzuen balorazioari dagokionez, haien irismenari eta egoerari, ematen dituzten zerbitzuei eta balioari buruzko informazioa emango da. Ekosistemen babesa neurtuko da, ematen dituzten zerbitzuak mantentzeko edo gehitzeko dagokionez (LAGen Aplikazio Arauen 4. artikulua).

Horrez gain, lurraldearen ingurumen-unitate homogeneoak definituko dira, horien paisaia-ezaugarrien eta baliabide naturalen azterketa integratutik abiatuta.

Eremua deskribatzeko, kontuan hartu beharko da Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak egindako txostena, Natura 2000 Sareko Ulia eta Jaizkibel-Txingudi³ eremuen eremuan lurraldearen eta itsasaren arteko jarraitutasun ekologikoari buruzkoa, Getaria-Higer kostaldeko ur-masaren mugaketa erreferentziatzat hartuta, eremu horietan deklaraturako natura-gune babestuen azalera handitze aldera.

Kultura-ondareaz, adieraziko da zein den hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, zaurgarritasuna, tresna eta babes maila. Era berean, aipatuko da zer arau-xedapenek ematen dion kalifikazioa eta babesa kultura-ondasunari. Kontuan hartuko dira ondare immaterialeko elementuak.

Lehen aipaturako ingurumen-alderdiak era kartografikoan adierazi beharko dira, ebaluatzen den agiriarekiko proportzioa duen eskalan.

Ingurumenaren gaur egungo egoeraren deskribapena egiteko, ingurumen-adierazleak erabiliko dira; horretarako, Ingurumen Esparru Programaren oinarritzko adierazleen panelen jasotakoak erabili ahal izango dira, bai eta Eustatek lurraldeari eta ingurumenari buruz bildutakoak ere, eta txosten honetako aurreko apartatuetan adierazitako ingurumen-helburuen bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua eman dezaketen beste batzuk. Horri dagokionez, baliagarria izan daiteke EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenaren Ingurumen Azterlan Estrategikoan jasotako adierazleen zerrenda⁴.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak ekarriko dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren kalteberatasuna, urgoria-arriskua, arrisku geoteknikoak, eta, bereziki, klima-aldaketa eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Hala dagokionean, ingurumen-arrisku eta -arazo horiek bereziki jasan ditzaketen populazio-guneak eta kokaleku zehatzak identifikatu eta lokalizatuko dira, bereziki klima-aldaketa onoriozko arriskuak; kasu horretan, ahalik eta zehatzen identifikatu beharko dira klima-aldaketa onorio kaltegarriak aurreikusten diren kostaldeko eremuak, hala nola: itsas mailaren igoera eta muturreko olatuak (ibaien uholdeak itsasadarretan duen eragina, maila freatikoa handitzea edo kolektore-sarea mehatxatzea barne), uholdeak areagotzea edo tenperaturak gora egitea.

Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, betiere Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira.

³<https://www.euskadi.eus/web01-a2ingdib/es/u95aWar/u95aPintaFicheroServlet?R01HNoPortal=true&idiomaFichero=es&codigoFichero=6966&tipoFichero=2&R01HNoPortal=true>

⁴ <https://www.euskadi.eus/directrices-de-ordenacion-territorial-dot/web01-a2lurral/es/>

Erabilitako adierazleei buruzko datuak jaso beharko ditu azterlanak, eta kasu bakoitzean datu zehatzak lortzeko izan daitezkeen zailtasunak justifikatu beharko ditu, ingurumen-zaintzako programa aplikatzeko erreferentziako ingurumen-egoera zehaztuta gera dadin.

6.3.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko eremuan, eta labur-labur jasoko da zein diren Planeko jarduketaren ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoerei, baita eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira planean jasota dauden jarduketaren ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak hauteman beharko du zer eremu izan daitezkeen arazotsu ingurumenaren aldetik, bateragarriak izan daitezen proposamenen garapenarekin; horretarako, kontuan hartu beharko du txosten honen 4. apartatuan adierazi diren eta ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremu edo elementuak daudela.

Era berean, eremuaren ingurumen-diagnostiko egokia egin beharko da, eremuaren harrera-gaitasuna, arrisku guneak eta inguru hauskor edo kalteberak ebaluatzeko.

6.4. Proposatutako planaren ingurumen-ondore nabarmenak.

Apartatu honetan, ingurumenean eragin ditzakeen efektu adierazgarriak aztertu beharko dira, honako alderdi hauek barnean hartuta: biodibertsitatea, biztanleria, giza osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, kultura-ondarea, ondare historikoa barne, klima-faktoreak, klima-aldaketan izan dezakeen eragina –planari lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia barne–, ondasun materialak, kultura-ondarea eta paisaia; faktore horien arteko interakzioa ere kontuan izan behar da, eragindako ekosistemek eskaintako ingurumen-zerbitzuak ere ebaluatuz. Eragin horiek barnean hartu behar dituzte zeharkako ondorioak, metaketak, sinergiak, epe labur, ertain eta luzerako eraginak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak.

LAParen berrikusketaren ondoriozko gai berriei dagozkien planeamendu-ekintzak identifikatuko dira. Bereziki, arreta berezia jarriko zaie azpiegitura berriak edo ingurune fisikoaren eraldaketa garrantzitsuak eragin ditzaketen ekintzei. Horretarako, Planaren eremuan, Aurrerapenaren dokumentuan adierazten diren klima-aldaketaren ondorio kaltegarrietara egokitzeko neurriak identifikatuko dira: Itsasoaren maila igoetzea eta muturreko olatuak (ibai-uholdeak itsasadarretan duen eragina, maila freatikoa handitzea edo kolektore-sarerako mehatxua barne), uholdeak areagotzea edo tenperaturak gora egitea eta, horien ondorioak, hala nola hondartzak, dunak eta padurak galtzea, uholdeak areagotzea hiriguneetan edo eremu urbanizagarrietan, kostaldearen espazioa olatuaren inpaktuaren aurrean; uholdeak itsasadarretan, etab.

Ildo horretan, Aurrerapeneko dokumentuan jasotako proposamen batzuk –itsas bidea, padurak handitzea, dunak egonkortzea, eta aldaketa klimatikoaren ondorioetara egokitzeko hiri-ingurunean hartu beharreko neurriak–, xehetasun-maila nahikoarekin definitu beharko dira, ingurumen-ikuspegitik euren egokitasuna baloratu ahal izateko, honako hauek zehaztuta: jarduketaren kokapenari buruzko datuak, ezaugarriak, dimentsioak, ingurumen-efektu posibleak, ziur aski eragina jasango duten ingurumen-balioak, etab. Eta, beharrezkoa denean, justifikatu beharko da ez dela gertagarria izango ingurumen-ondorio kaltegarri jakin bat gertatzea. Zehazki, aurreratzen da itsasoaren bideak ez lukeela eraginik izan behar flora mehatxatuko populazioak dauden lurraldeko eremuetan edo fauna mehatxatuko espezieen ugalketa-lekuetan, ez eta paisaia-intereseko lekuetan ere; gainera, urbanizazioa handitzea baztertu behar da.

Halaber, hala dagokionean, zehaztuko da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Era berean, ingurumen-izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzaie.

Era berean, ahal denean, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, halaber, ahalegina egingo da zehazteko plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen ondorio horiek, aurreikuspenen arabera.

Adieraziko da ea hautemandako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein den eraginpeko plangintza-tresna.

Hierarkizatu egingo dira hala deskribatutako ingurumen-ondorioak, eta haien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4.1. Natura 2000 Sareko guneei eragiteari buruzko balorazioa

LAParen aurrerapen-dokumentuak Natura 2000 sareko tokiak jasotzen ditu LAPeko azpiegitura berdeaosatzen duten gune babestuen artean.

Zehaztuko da, hala dagokionean, hautemandako efektuak eraginik sortzen ote duen Natura 2000 Sareko lekuetan eta 3. apartatuan jasotako beste gune batzuetan zaindu beharrekoak diren elementuetan.

Bestalde, lehen aipatu den bezala, Planak zehazten duen neurrian LAParen eremua osatzen duten Natura 2000 Sareko gune babestuak dagozkien kudeaketa-dokumentuetan ezarritakoaren arabera arautuko direla, eta betiere xedapen hori LAParen gidalerroetan, ingurune fisikoaren antolamenduaren arloan, txertatzen bada, ezin da espero Natura 2000 Sareko lekuetan eragin nabarmenik izango denik, beraz, ez da beharrezkoa izango azterketak atal espezifiko bat izatea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bestela, Planak Natura 2000 Sareko espazioetan zuzenean edo zeharka eragin nabarmena izan dezaketen zehaztapenak, neurriak edo jarduerak biltzen baditu, berariazko atal bat gehituko da eremu horietan izango dituzten eraginak ebaluatzeko, kontuan hartuta gunearen kontserbazio-helburuak. Atal horretan honako hauek jasoko dira: eragin horiek, Natura 2000 Sareko prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak eta horien jarraipena.

Natura 2000 Sarearen osotasunari kalte egingo zaiola egiaztatzen bada, sustatzaileak agiri bidez justifikatu beharko du ez dagoela beste alternatibarik eta badaudela lehen mailako interes publikoko ezinbesteko arrazoiak, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46. artikuluen 5., 6. eta 7. apartatuetan aipatzen diren horietakoak, hain zuzen.

LAParen ondorengo faseetako jarduketak zehazte aldera, interesgarria litzateke koordinazioa lortzea –ahal den neurrian– antolamendu- eta kudeaketa-planetan aurreikusitako neurriekin eta LAParen antolamendueremuan dauden natura-gune babestuetako Natura 2000 Sareko espazioak kontserbatzeko tresnekin. Horri esker, ingurumen-aldagaia sartu ahal izango litzateke erabakiak hartzerakoan, eta kasu bakoitzean irtenbiderik egokiena hartu ahal izango litzateke, kostaldeko natura-ondarearen babes eraginkorra bermatzeko klima-agertoki guztietan.

6.5. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

Aurreko apartatuan identifikatutako ondorio adierazgarri bakoitzerako, aurreikusitako neurriak deskribatuko dira ondorio horiek prebenitzeko, zuzentzeko edo, hala badagokio, konpentsatzeko. Ahal den heinean, proposatutako neurrietako bakoitza zer garapen-tresnatan txertatuko den zehaztuko da.

Lurraldearen lotura ekologikoa ziurtatzeko behar diren neurri, arau edo erregulazioak proposatuko dira.

Eraikuntza-erabileren eta defentsa-jarduketan erregulazioa udal-plangintzarako erregulazio loteslea izateko aukera baloratuko da, denboraren, itsasadarreko, kostaldeko edo padurako eremuen eta lurzoruen egoeraren arabera, hirigintzaren ikuspegitik.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzaren txostenean ezarritako gogoetak jasota, neurri gisa hartu beharko lirateke Lemoizko Basordas kala berreskuratzeko proposamenari eustea eta Urdaibaiko barneko dunak edo betegarri artifizialak handitzeko proposamenari eustea, eta duna naturalak

leheneratzea, Laga hondartzako okupazioa ezabatuta, edo lehendik bazeuden eta gizakiaren jardueraren ondorioz desagertu egin diren dunak berreskuratzea.

Nolanahi ere, Planetik eratortzen diren gidalerro, irizpide eta jarduketaren definizioan, eta LAGak Aplikatzeko Arauen 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, naturan oinarritutako soluzioak lehenetsi beharko dira, eta, edonola ere, jarraitutasun ekologikoarekin bateragarriak direnak, eta ez lineako inpaktu handiko soluzio teknikoak, baita Plangintza hidrologikoa eguneratzeari dagozkion dokumentuetan eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana Berrikusteari eta eguneratzeari dagozkion dokumentuetan uholde-arriskuetaarako proposatutakoarekin bateragarriak ere, izatez, horiek egiturazkoak ez diren jarduketei lehentasuna ematea proposatzen dute, ahal den neurrian ur-masen eta horiei lotutako ekosistemen narriadura morfologikoa saihesteko. Ildo beretik, Life Urban Klima 2050 proiektuarekin lotutako lanak, gaur egun garatzen ari direnak, baliagarriak izan daitezke Planaren lurralde-antolamenduan klima-aldaketa eta aldaketa horrekiko egokitzapena txertatzeko gidalerroak definitzeko.

Ildo beretik, garrantzitsutzat jotzen da LAPak kontuan hartzea azpiegitura berdearen funtzionaltasuna bermatuko duten gidalerro espezifikoak, bereziki gaur egun arriskuan dauden eremuetan. Horri dagokionez, LAParen aplikazio-eremuan garatu beharko dira Azpiegitura Berdearen eta Ekosistemen Zerbitzuen arloko Gidalerroak, LAGak aplikatzeko arauen 4. artikuluan ezartzen direnak.

Tokiko ezarpenari buruzko azterlanak egiteko, uholdeen ezaugarri hidraulikoak aztertu eta definitzeko eta klima-aldaketara egokitzeko eskumena duten erakundeek ikuspegiak eta emaitzak integratu behar dira, erakundeek arteko lankidetzaren bidezko koordinazio-mekanismoen bidez. Hala badagokio, gidalerroak, irizpideak eta/edo prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, komenigarri edo egingarria denean haiek aplikatzea plangintzaren geroagoko fase edo etapetan edo plana gauzatzeko etorkizunean diseinatutako diren proiektuetan.

6.6. Ingurumena Zaintzeko Programa.

LAGak Aplikatzeko Arauen 36. artikuluan adierazitakoa kontuan hartuta, *LPP eta LPSen jarraipenaren arloko gidalerroei eta jasagarritasun-adierazleei* dagokienez, Azterlanak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta bertan Planaren aplikazioaren ingurumen-ondorioak gainbegiratzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ingurumena zaintzeko programan adierazleak deskribatuko dira, eta, behar izanez gero, efektu esanguratsuenen erreferentziako balioak, bai positiboak bai negatiboak.

Ingurumena zaintzeko programak txosten honetako 7.2.1 apartatua betetzeko proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu azterlanean. Era berean, kasuan-kasuan datuak zein periodikotasun eta metodologiaren bidez jasoko diren azaltzeko proposamen zehatz bat ere jaso beharko du.

Espedientean dagoen Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren txostenaren arabera, honako tresna hauek ditugu klima-aldaketan inplikaturako aldagaien jarraipena egiteko:

- Baldintza ozeano-meteorologikoen zaintza- eta alerta-sarea.
- Itsasertzaren Kutsadurari Aurre Egiteko Euskadiko Larrialdi Plan Berezia "Itsasertza".
- Babes zibileko informazio- eta alerta-sarea.

6.7. Laburpen ez-teknikoa.

Emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat ere bilduko du azterlanak, eta laburpen horrek, bestalde, ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du.

Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeki ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, organo sustatzaileak jendaurreko informazioaren izapidearen pean jarriko du plan honen hasierako bertsioa, IAEarekin batera, gutxienez, 30 egunez. Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak, jendaurreko informazioaren izapidearen pean jartzearekin batera, kontsulta egin beharko die administrazio eta interesdun ukituei. Organo sustatzaileak gutxienez erakunde eta interesdun hauei egin beharko die kontsulta:

Eusko Jaurlaritza:

- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua
- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza.
- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
- Uraren Euskal Agentzia, URA
- Ihobe. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza.

Gipuzkoako Foru Aldundia

- Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusiaren Fauna eta Flora Zerbitzua. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Zuzendaritza.
- Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusiaren Mendiak eta Habitata Kudeatzeko Zerbitzua. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Zuzendaritza.
- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua.
- Nekazaritzako eta Lurralde Oreko Zuzendaritza Nagusia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Zuzendaritza.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Lanbide, Gazteria eta Kirol Departamentua.
- Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia. Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentua.

Bizkaiko Foru Aldundia:

- Kultura Zuzendaritza Nagusia. Euskara, Kultura eta Kirol Saila.
- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko Natura Ondarearen Zerbitzua. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila
- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziorako atala: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila
- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila
- Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila

BESTELAKOAK

- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, Uraren Euskal Agentziaren bitartez (URA) eta agentzia bera.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Kostaldearen Mugapea (Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioa).
- Kostaldeko eta Itsasoko Zuzendaritza Nagusia (Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa).
- Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Biodibertsitate, Baso eta Desertifikazio Zuzendaritza Nagusia.
- Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoa (Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa).
- Bilboko Portu Agintaritza.
- Pasaiaiko Portu Agintaritza.
- EUEDEL – Euskadiko Udalen Elkartea (Planaren eraginpean dauden Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerriak).

Interesdunak:

- Ekologistak Martxan.
- Eguzki (Eguzkizaleak Aisialdirako Elkartea).
- Itsas Enara Ornitologia Elkartea.
- Haritzalde.
- Zumaia Natur Taldea.
- Zain Dezagun Urdaibai.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua betez, kualifikazio profesional eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoak duten pertsonak egin beharko dute IAEa, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. IHSk eta erantsitako azterlan edo dokumentuek pertsona horiek identifikatu beharko dituzte, titulazioa eta, hala badagokio, araututako lanbidea adierazita. Identifikazioak barne hartu beharko ditu izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren edo helburu bererako beste edozein agiriren kodea (elkargokide-zenbakia entregatuz gero, horrek bat etorri behar du elkargo profesional jakin baten erregistroarekin). Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Haiek dokumentuaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira, salbu eta administratibotik era fede-emaillean jasotako datuei dagokienez. Apartatu monografikoak baditu, apartatu horien arduradunak identifikatu beharko dira.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: planaren edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, planaren edo programaren azken proposameneari honako alderdi hauek nola xtertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa telematikoki aurkeztuko da, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideen arabera. Hona hemen horietarako esteka:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf

Bigarrenen. - Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 17a.

Javier Agirre Orcajo.

INGURUMEN KALITATEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ZUZENDARIA